



LEIOA BLOG 3.0 LEHIAKETAREN OINARRIAK

Leioa Blog Lehiaketak merkataritza, hostalaritza eta Leioako zerbitzuak bultzatzea du helburu, Leioa merkataritza gune handi bat bezala, aisialdirako eta hiri-kulturako gune bezala ulertuta, blog fenomenoaren, Instagram eta youtuberen bidez.

Datak: Jardunaldia abenduaren 15ean eta 16an burutuko da. Abenduaren 15ean Mendibile Jauregian 16:30etan hasiko da eta abenduaren 16an goizeko 10:30etan Behargintza Leioaren egoitzatik irteera izango da ibilbidearekin jarraitzeko.

Parte hartzaileak: 18 urtetik gorako pertsonak, Interneten edozein blog edo eguneroko pertsonal dutenak, gaztelaniaz edo euskaraz idatzia, instagramerra, youtuberra edo ikus-entzunezko produktorea.

Horretarako, aldez aurreko izen ematea egin behar da Behargintza Leioa egoitzan, edo [esteka honen](#) bidez, blog edo webgunearen esteka jarritz, izena, abizenak, adina eta telefono zenbakia.

Lehiaketatik kanpo gelditzen dira txapelketaren antolaketan inplikaturako pertsonen blogak, instagrameko edo youtubeko kontuak edo produktoreak.

Antolakuntzak edozein momentutan lehiaketatik kanpo utzi ditzake bere ustez lehiaketa irabazteko ekintza irregularrak erabili ahal izan dituzten argitalpenak edo oinarrietan zehaztutako helburuarekin bat etortzen ez den edukia dutenak.



Izena emateko epea: Epea oinarri hauek argitaratzen diren unetik hasiko da eta abenduaren 12an amaituko da.

Garapena: Izena eman duten blogariak, instagramerrak, youtuberrak edo zinemagileak abenduaren 15ean arratsaldeko 16:30etan aurkeztu behar dira Mendibile Jauregian. Horrela egin ezean lehiaketatik kanpo geldituko dira.

Momentu horretan lehiaketan parte hartzeko jarraibideak emango zaizkie.

Blog kategoria:

Blogari parte hartzaileek bi argitalpen egin beharko dituzte: bat Leioan bizi izandako norberaren esperientziaren inguruan kultura, gastronomia eta aisialdiko erakargaiekin, lehiaketaren hasieran esleituko zaien proposamen zehatzean ardaztuz.

Postak lehiaketa amaitu ondorengo 48 ordutan argitaratuta egon behar dira euren azterketa eta ebaluazioa egiteko.

Instagram kategoria:

Instagrameko parte hartzaileek gutxienez bi argitalpen egin beharko dituzte lehiaketako egun bakoitzean. Lehenengo egunean, Leioan kultura, gastronomia eta aisialdiko erakargaiekin bizi izandako norberaren esperientzian ardaztuko dira; eta hurrengo egunean, herriko merkataritzaren inguruan, lehiaketaren hasieran esleituko zaizkien establezimendu zehatzetan zentratuz.

Egoki deritzeten irudi guztiak argitaratu ahal izango dira, lehiaketara aurkezten direnak zeintzuk diren zehatz-mehatz adieraziz, gehienez bi argazki parte hartzaile bakoitzeko, hain zuzen ere.

Irudi hauek lehiaketa irauten duen bi egunetan argitaratu behar izango dira.

Bideo espres edo youtube kategoria:

Youtube kategorian parte hartzen duten pertsonak bi bideo argitaratu beharko dituzte lehiaketan parte hartzearen esperientzia jasoz eta berorietan gutxienez hiru establezimendu desberdinak izendatu eta aurkeztu behar dituzte.

Bideoak ekintzaren ondorengo 48 orduetan argitaratuta egon behar dute haien azterketa eta ebaluazioa egiteko.

Beste alde batetik, **laburmetraia expres lehiaketan** parte hartzen duten pertsonak bi egun izango dituzte laburmetrai bat egiteko, gaia Leioako merkataritzan ardaztuta egon beharko delarik, eta gutxienez, hiru establezimendu desberdin eta udalerriko leku ezagunenak erakutsi beharko dituzte.

Lehiaketa amaitu ondoren 48 ordu izango dute editatzeko eta ebaluazioa egingo duen antolakuntzara bidaltzeko.

Kategoria honetan egindako lanetarako ezarritako iraupena (bideko espres/youtube/laburmetraia) 1 eta 3 minutu artekoa izango da.



“Herrikoia” Kategoria:

Kategoria herrikoia bat ezartzen da pertsona interesdunek parte hartu ahal izan dezaten beren argazkiekin #LeioaBlog17 etiketa erabiliz.

Ez da beharrezkoa parte hartzaile hauek azkez aurretik izena ematea.

Egoki deritzeten irudi guztiak argitaratu ahal izango dira, baina bi bakarrik proposatu ahal izango dira lehiaketan parte hartzeko. Irudi hauek Instagramen argitaratu beharko dira lehiaketa hasi eta 48 orduko epean.

Kategoria honetan parte hartzen duten pertsonen modu zehatzean adierazi beharko dute zeintzuk diren lehiaketara aurkezten dituzten irudiak eta beren sormen-lanak udalerriko merkataritza, zerbitzuetako eta hostalaritzako establezimenduetan ardaztu.

Epai eta sari ematea:

Sariak epaimahai baten proposamenei jarraituz emango dira. Epaimahaiaren osaketa honako hau izango da:

- **Presidentea:** Leioako Alkatea edo ordezkatzeko duen zinegotzia.
- **Idazkaria:** actuará como secretaria la Directora de Behargintza o persona en quien delegue.
- **Epaimahaikideak:** 3 pertsona, kultura, komunikazioa eta merkataritzaren munduarekin lotutakoak.

BLOGGER SARIA: 600 EURO LEIOA BLOG LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN DENDETAN KONTSUMITZEKO.

INSTAGRAMEK SARIA: 600 EURO LEIOA BLOG LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN DENDETAN KONTSUMITZEKO.

YOUTUBER / LABURMETRAI ESPRES: 600 EURO LEIOA BLOG LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN DENDETAN KONTSUMITZEKO.

BLOG AIPAMEN BEREZIA: 300 EURO LEIOA BLOG LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN DENDETAN KONTSUMITZEKO.

INSTAGRAMEK AIPAMEN BEREZIA: 300 EURO LEIOA BLOG LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN DENDETAN KONTSUMITZEKO.

YOUTUBER/ LABURMETRAI ESPRES AIPAMEN BEREZIA: 300 EURO LEIOA BLOG LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN DENDETAN KONTSUMITZEKO.

SARI HERRIKOIA: 150 EUROS LEIOA BLOG LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUTEN DENDETAN KONTSUMITZEKO.

**Sari herrikoia kasu izan ezik, sariaren zenbatekoa lehiaketan parte hartzen dutenen arteko gutxienez hiru establezimendu desberdinetan kontsumitu behar da.*

Pribatutasun Politika:

Abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa betez, honako hau jakinarazten zaizu: izena emateko inprimakian jasotako datuak parte hartzaileen fitxategi batean erregistratuko direla, fitxategi honen helburua lehiaketan aurkeztu diren pertsonak ezagutzea izanik; informazioa



hartuko duten pertsonak Leioako Udaleko Sustapen Ekonomikoaren Sailekoak izango dira, fitxategiaren azken erantzulea Leioako Udala da.

Leioako Udalak lehiaketan aurkeztutako material guztia erabili ahalko du, egilea izendatuz eta aurkeztutako lanei lotura eginez. Lanen aipamena beti egingo da lehiaketan parte hartu duten pertsonentzako onura ekonomikorik gabe, Leioako merkataritza bultzatzeko helburu bakarrarekin.

Edozein pertsona parte hartzailek bere datu pertsonalen sarbide eskubideak, eta datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak baliatu ahal izango ditu horretarako "Pribatutasun Politikan" ezarritako prozedura erabiliz.